

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

1958/2019 Ebazpena, urriaren 9koa, zeinaren bidez onesten baitira salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzera zuzenduriko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzeko 2019ko irailaren 27an Arabako Lurralde Historikoan egindako probaren behin betiko emaitzak

Azaroaren 28ko 2351/20a18 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA), salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duena, eskuratzeko xedez Arabako Lurralde Historikoan 2019an egitea aurreikusitako probetarako, eta proba horiek arautzen zituzten oinarriak argitaratu ziren.

Aipatutako ebazpenaren I. eranskinaren lehen oinarriak xedatzen du 2019an sei deialdi egingo direla, eta bosgarren deialdiko azterketa irailaren 27an, ostiralarekin, egingo zela. Proba hori araututa zegoen bezala egin zen.

Zortzigarren oinarriaren arabera, ariketak kalifikatu ondoren, epaimahaiak www.araba.eus web orrian argitaratu behar ditu behin-behineko emaitzak, eta bost egun balioduneko epea hasiko da, interesdunek alegazioak egin ditzaten. Behin ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak onartu behar ditu Mugikortasun eta Garraioaren zuzendariak, ALHAOn argitaratuko den ebazpenaren bidez.

Behin-behineko emaitzak 2019ko irailaren 30ean argitaratu ziren web orrian, eta haien aurka ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, behin betikotzat jo behar dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretua; Diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Foru Dekretua; eta azaroaren 28ko 2351/2018 Ebazpenarekin bat etorritik, nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onestea salgaiak eta bidaiariak errepide bidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzeko probaren behin betiko emaitzak, zeinak eranskinean jaso baitira. Azterketa hori 2019ko irailaren 27an egin zen, Arabako Lurralde Historikoan.

Bigarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, eta behin betiko emaitzen zerrenda www.araba.eus web orrian.

Ebazpen honek ez du agortzen administrazio bidea eta, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 112.1 eta 121. artikuluetan ezarritakoaren arabera, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari hilabeteko epean, hura ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 9a

Mugikortasun eta Garraioaren zuzendaria
PATRICIA PÉREZ AGUIRRE

GGA LORTZEKO EMAITZEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA - SALGAIK

NAN	EMAITZA
58062339N	Ez gai
72720450Q	Gai
72841124D	Ez gai
72857974T	Gai
79476088W	Gai
X2185167Y	Ez gai
X3118518V	Ez gai
X3967634L	Ez aurkeztua
X4156675T	Ez gai
X5910444L	Ez gai
X6866561A	Ez gai
X9628615X	Ez gai
X9864950C	Ez gai
Y1124188P	Ez aurkeztua

LORTZEKO EMAITZEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA - BIDAIARIK

NAN	EMAITZA
18601953J	Ez aurkeztua
29035129K	Gai
72721765C	Gai
72732236A	Ez gai
72826926W	Gai